

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2010eko azaroaren 16a. VIII. urtea. 2.123. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Lehiaketak eta bestelako ekitaldiak babarrunaren bueltan

Larunbatean eta igandean zehar Azoka Berezia, Ekoizleen Lehiaketa, enkantea, Lehiaketa Gastronomikoa eta bazkari herrikoiak izango dira Tolosako Babarrun Astea dela eta

Babarrun Elkarteko Mari Karmen Iradik azaldutakoaren arabera, «kalitatean ez ezik urte ona izan da kalitatean ere» eta ondorioz ekoizleak «oso gustura» daude 02



Babarrun Astea aurkeztu eta gero babarrunak dastatzeko aukera ere izan zuten antolatzaileek. I. TERRADILLOS

Azokak, kirola, afaria eta elkartasun ekitaldiak asteburuan

Askotariko hitzorduak izan dira pasa diren egunetan Tolosaldean; Amezketan eta Berastegin esaterako azoka eguna izan zuten herenegun 04-5



Amezketako azokan ateratako irudia. SARA GOMEZ

Ezker abertzaleak Bide Berriak plataformako dimisioa eskatu du

Leaburu-Txaramako zinegotzi bat «idazkariari mobing-a egiteagatik inputatuta» dagoela jakinarazi dute; Udaleko lan hitzarmena «atzerata» dutela ere salatu dute 03

ZU zara berria 15 egunetan gure produktak

hitza info

euskarazko komunikabideak, elkartean, berrituta, mugimenduan

berria info

Egin ezazu eskara: 943-20 13 45 - hitzazera@berria.info edo webgunearen bidetx

www.zuzaraberria.info berriketan.info

Eta ongi etorri oparita jasoiko duzu

kanikak

Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

Herriko 'altxorra'-ren unea

Azoka Berezia, Ekoizleen Lehiaketa edota Lehiaketa Gastronomikoa izango dira asteburuan

Iñigo Terradillos Tolosa

Tolosa Goxua azoka igarota, sona handiena duen ezaugarri edo produktu baten txanda da orain, babarrunarena, hain zuzen. Asteburu honetan izango dira aurtengo Babarrun Astearen baitako ekitaldi nagusienak, eta ohi bezala, ez dute hutsik egingo Babarrun Ekoizleen lehiaketak, enkanteak, Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa edota herri bazkariak, besteen artean.

Urte oparora izan du, gainera, aurtun babarrunak. Tolosako Babarruna Elkartetik azaldu duteenez, «kantitatean ez ezik urte ona izan da kalitatean ere». Hori dela eta, «oso gustura» daudela adierazi zuen atzo eginiko Babarrun Astearen aurkezpenean Mari Karmen Iradi Babarruna Elkarteko lehendakariak. 27,5 hektarea erein dituzte aurtun, iaz baino 1,5 gehiago, eta 35.000 kilo biltzea espero dute, pasa den urtean baino 10.000 gehiago.

Herritarren elkargune

«Geroz eta maiteago dugun produktua» da babarruna Jokin Bildarratz Tolosako alkatearen arabera, eta horrez gain, «herritar askoren elkargune izatea ahalbidetzen du asteburu honetakoa bezalako festa eginez».

Festa horrek osagai ugari izango ditu. Esaterako, babarrunarekin lotura duten produktuen azoka berezia izango da larunbatean, Trianguloan. Bertan, eguerdian Tolosako babarruna eta Segoviakoa dastatzeko aukera izango da, 800 razio baino gehiago banatuko baitituzte. Horrez gain, izango da, piperrak, txerrikiak, odolkiak... dastatu eta erosteko aukera.

Goizean zehar Babarrun Ekoizleen Lehiaketara aurkeztuko diren babarrunak sukaldatzen ariko dira Roberto Ruiz, Felix Be-



Mari Karmen Iradi, Jokin Bildarratz, Nerea Letamendia, Jose Mari Kamino eta Jose Migel Gomez, atzo, Babarrun Astearen aurkezpenean, Zerkausian. IÑIGO TERRADILLOS

launzararen eta Peio Doyharzabal sukaldariak, eta eguerdian emango du epaimahaiak jakitera zein den aurtengo babarrun onena. Ondoren, babarrun horren lekale bat enkantean jarriko dute. Iaz ordaindutako 2.100 euroak Maliko eskola batera bideratu zituzten.

Larunbatak hartuko du beste lehiaketarik, Txinparta elkarteak antolatzen duen Txapela nork ondoen jantzi, hain zuzen ere. Emakume nahiz gizonek har dezakete parte, eta horretarako 607 83 59 67 zenbakira deitu beharko da, edo elkartera azaldu larunbatean bertan.

Larunbata eta igandean bazkariak

Bazkariaren unean ere babarrunak ezin hutsik egin. Larunbatean Ezpeleta ostalaritza elkarteak antolatuta Alde Zaharreko tabernetan babarrunak prestatuko dituzte, eta igandean, berriz, bazkaria izango da Zerkausian, Gure Txokoa elkartearen eskutik. Halaber, goiz osoan zehar Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa ere egingo dute aurreko eguean irabazi duen babarrunarekin. Bazkarian izena emateko 607 67 27 09 zenbakira deitu beharko da. 24 euro ordaindu beharko da ba-

barruna ardatz duen menua dastatzeko.

Egitaraua osatzeko, gaztetxoentzako ekitaldiak izango dira goizean nahiz arratsaldean, eta Beotibar pilotalekuan Biarritz eta Tolosako puntista beteteranoak ariko dira nor baino nor.

Tolosatik at ere bai

Gurean ez ezik, Donostian ere Tolosako Babarrunaren Eguna ospatuko dute. Astelehenean izango da, Kofradiak eta Londres hotelak antolatuta. Londres hotelan babarruna osagai nagusi den menua jan ahaliko da.

↓ Egitaraua

AZAROAK 20, LARUNBATA

- **08:00.** XXIII. Tolosako Babarrun Ekoizleen Lehiaketa hasiko da, Trianguloa plazan.
- **09:00.** Azoka Bereziaren irekiera. Babarrunarekin lotura duten produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da, hala nola, piperrak, odolkiak, txerrikiak edota ardoa. Trianguloa plazan izango da goiz osoan.
- **10:00etatik 14:00etara.** Kale animazioa eta umeentzako jolasak egongo dira Kultur Etxean.
- **11:30.** Babarrun Ekoizleen Lehiaketako epaimahaiak bere lanari ekingo dio, Trianguloa plazan.

- **12:00.** XII. Txapela Nork Ondo Jantzi Lehiaketa egingo dute Txinparta elkarteak (Arosategieta kalean).
- **12:00.** Tolosako Babarrun Kofradiaren eskutik, Tolosako babarruna eta Torrecaballeros-eko (Segovia) El Rancho jate-txeak prestatutako bertako babarruna, *judion* izenekoa dastatzeko aukera izango da, Trianguloan.
- **12:30.** Azaroaren 13an jokatu zen X. Mus Txapelketa Azkarren sari banaketa Trianguloa plazan.
- **13:00.** XXIII. Tolosako Babarrun Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa, Trianguloa plazan.
- **13:15.** Babarrun irabazlearen lakari bat enkantean jarriko da, Trianguloa plazan.
- **13:30.** Txapela nork ondoen jantzi Lehiaketako sari banaketa egingo dute Txinparta elkarteak.

- **14:00.** Babarrun jatea Alde Zaharreko tabernetan, Ezpeleta Ostalaritza elkarteak antolatuta. 500 lagun ingururentzat prestatuko dituzte babarrunak.
- **18:00.** Tatxin eta Tatxan pailazoaren emanaldia Zerkausian.
- **19:00.** Miarritze eta Tolosako puntista beteteranoen topaketa Beotibar pilotalekuan.

AZAROAK 21, IGANDEA

- **08:00.** XXIV. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa, Trianguloa plazan.
- **13:00.** Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko epaimahaiak bere lanari ekingo dio, Trianguloa plazan.
- **14:30.** Herri bazkaria, Zerkausian.
- **16:30.** Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa egingo dute Zerkausian.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Ezkontza-eratzuna.** Villabonako Udaltzaingoa bulegoaren ezkontza-eratzun bat utzi zuten iragan ostiralean, Etxe

Ondo auzoan aurkitua. Udaltzaingotik adierazi dute, galdutuenak euren bulegora joan behar duela, astelehenean ostiralerara.

→ Laburrak

Mahai ingurua egingo dute etzi, espeteratuei buruz

ERLIJIOA › Espeteratuekiko Pastoraltzak antolatuta, mahai-ingurua egingo dute etzi, 19:30ean hasita, Santa Maria parrokiko bilera gelan. *Kartzela, birgizarteratzeko ala hondatzenko?* izango da jorratuko duten gaia.

Pasaban eta Izagirrekin bideo emanaldia, Oargin

MENDIA › Oargi Mendi Elkarteak bideo emanaldia antolatu du etzira. Edurne Pasaban eta Asier Izagirre mendigoizaleak izango dira bertan, eta 19:30ean hasiko da. Emanaldiaren ostean, mokadutxo emango dute. Parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dira, eta izena eman beharko da 943 67 56 12 zenbakian, *oargielkar-tea@gmail.com*-en edo Oargi elkartearen bertan.

Aparteko Osoko Bilkura egingo dute gaur

GIZARTEA › Aparteko Osoko Bilkura egingo du gaur Udalbatzak, 19:30ean hasita, batzar aretoan. Bertan, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta adierazpen instituzionala onartuko dute.

Filipinei buruzko emanaldia gaur ikusgai

GIZARTEA › *Recordando a Legazpi y Urdaneta* izeneko diapositiba emanaldia izango da gaur, 16:30etik aurrera, Helden Hezkuntza zentroan. Juantxo Goñi EHUko irakasleak eskainiko du emanaldia. Andres Urdanetarekin eginiko bidaian Mikel Lopez Legazpi sorturiko Manila hiriburuan hasiko dute bidaia. Luzon irlan jarraituko dute, eta Urdaneta hiria ezagutzeko aukera ere izango da. Astirik bada, Indonesiari buruzko diapositibak jarriko dituzte ikusgai.

Argindar mozketak egingo dituzte gaur arratsaldean

GIZARTEA › Tolargitit adierazi duteenez, «bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», instalazioetan hobekuntza eta mantentze lanak egiten ari dira, eta horregatik, argindar mozketak egingo dituzte gaur. Hain zuzen ere, San Frantzisko kaleko 17, 19, 21, 23, 35 eta 37 zenbakietan, Emeterio Arreseko 2 eta 5ean eta Samaniego kaleko 1ean egingo dituzte mozketak 15:00etatik 16:10era bitarte.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ostegun iluntzean agerraldia egin zuten Leaburu-Txaramako ezker abertzaleko ordezkariak. ESTI ZEIZA

Ezker abertzaleak Deusto zinegotziaren dimisioa eskatu du

«Idazkariari mobing egiteagatik inputatua» dagoela salatu dute, eta egoera errepikatu daitekeela ohartarazi

Erredakzioa Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleko ordezkariak egindako agerraldian jakitera eman zuten «Deusto inputatua dago idazkariari egindako mobing-agatik».

Bestalde beraien kezka adierazi zuten. «jazarpen honen ondorioz urtebete inguruz bajan egon ostean berriro lanera itzuli baita idazkaria, eta beldur gara, mobing-ak jarraituko ote duen».

Ezker abertzalekoek gaur egungo egoera «larriaz» ohartarazi nahi dituzte herritarrek. Salatu zuten, Leaburu Udaleko zinegotzi den Jose Martin Deustok eta Bide Berriak-eko bere alderdikideek «urte askoan indarrean egon den Udaleko lan hiztarmena atzera bota dute, eta

herrian, langileen aurkako esamesak zabaldu dituzte. Honez gain, udal idazkaria, fede emaile publikoa dena, mespretxatu dute, baita bere lana zalantzan jarri ere». Hori dela eta, ezker abertzalekoek argi utzi nahi izan dute «horrelako pertsonak ezin direla Udal baten arduradun izan, are gutxiago herriak ez baditu horretarako aukeratu». Arrazoi hauengatik, Bide Berriak-eko dimisioa eskatzen dute.

Zinegotziaren aurkako salaketari erreferentzia eginaz berriz,

honako alderaketa egin zuten, «ezker abertzalea alkatetzan egon den urteetan, epaitegietara deituak izan garen une bakarra, herriko gazteen alde egiteagatik izan da, intsumisioa bultzatuz, eta presoen aldeko borroka egiteagatik». «Hor dago ezberdintasuna, herriaren alde lan egin edo norberaren buruaren alde», gaineratu zuten.

Hiru urte udaletxetik at

2007ko udal hauteskundeetan Leaburu-Txaraman ezker abertza-

lea izan zen bozka gehien jaso zuten alderdia. Baina, alderdien legearen ondorioz, hau, legez kanpo geratu zen. Alderdi hau hogeitau urte baino gehiagoan egon da alkatetzan, baina azken hiru urteetan, Bide Berriak alderdia dago indarrean. Hala, ezker abertzalekoen esanetan, «epe hau nahikoa izan da egungo Udaleko ordezkariak nolakoak diren ikusteko. Udaleko arduradun izatera lapurretaren ondorioz iritsi baitziren, ez herritarren babesagatik». Gaineratu zuten, «beraien helburua ezker abertzaleari mendekua egi-

«Bere helburu bakarra ezker abertzalea nola hala, Udaletik kanpo uztea zen»

«Hiru urte nahikoak izan dira egungo udal ordezkariak nolakoak diren ikusteko»

tea besterik ez dela». Egungo arazoaren errudun nagusitzat, Jose Martin Deusto jotzen dute, «bera da kideei gezurrak esan dizkiena, eta informazioa ezkututzen duena». Zinegotziaren aurkako hainbat adierazpen egin zituzten agerraldian zehar: «Deustok alkatetza lapurtu zigun, Mari Kruz Agirrenen laguntzarekin, bera baita, gaur egun alkate gisa agertzen dena, nahiz eta bistakoa den, sinadura berak jartzen badu ere, benetan agintzen duena Deusto dela».

Legealdi berriarekin, Leaburu-Txaramako «unerik beltzena eta ilunena» etorri zela diote, eta galdetu «non geratu dira Leaburun nahiz Txaraman egiten ziren bilera informatiboak? Non gelditu dira deialdi irekiak, adibidez herriko festak antolatzeko? Herriari informazioa ematea...». Horrelako edo antzeko beste hainbat adibide eman ditzaketela esanaz amaitu zuten.

Aurrera elkarteak GPS ikastaroa antolatu du asteburu honetarako

Gaur amaitzen da izena emateko epea; saioak larunbat eta igandean izango dira Erleta eskolan

Erredakzioa Leitza

Mendibil Mendi taldeak GPS ikastaroa antolatu du asteburu honetarako. Saioak larunbatean eta igandean izango dira, Erleta eskolan.

Ikastaroaren prezioa 40 eurokoa da. Baina Aurrera elkarteak bazkideek erdia ordaindu beharko dute, hau da, 20 euro. Ikastaroan parte hartzeko, beharrezkoa da mendiko GPSaren erabilpena menperatzea eta oinarriko informatika menperatzea.

Ikasle kopuruari dagokionean, gehienez hamalau lagunek hartu ahal izango dute parte. Aurrerako bazkideek lehentasuna izango dute. Izena emateko 636 50 95 98 telefono zenbakira deituta egin daiteke. Gaur amaitzen da epea.

<p>SOLAGÜEN 2004. urteko ERRESERBAko ardoa 6 botilako kutxa 60 €</p> <p>12 botilako kutxa 72 €</p> <p>SOLAGÜEN 2005. urteko ardo ONDUA</p>	<p>REMELLURI 2005. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>3 botilako kutxa 40 €</p> <p>6 botilako kutxa 80 €</p>	<p>BRUT NATURE MAINEGRA</p> <p>VINO D'ARAGON Bordeleko ardoa, 100% uztar, 100% uztar 100% uztar, 100% uztar 100% uztar, 100% uztar 100% uztar, 100% uztar</p> <p>6 botilako kutxa 39 €</p>	
<p>Erosi berriaren GABONETAKO ESKAINTZAN EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK azaroaren 30a arte!</p> <p>Osatu zure saskial!</p> <p>943 30 43 45 943 30 43 45 Bikarretatik gertuak doan</p>			<p>Alfar La Maja</p> <p>OLIBA OLIO SIRIENA ETXERA</p> <p>6 botilako kutxa 36 €</p>

Berastegi



XII. AZOKA EGUNA

Kultur Asteari amaiera emateko, Igandean Berastegin azoka izan zuten. Pilotalekuan herriko era guztietako produktuekin osatutako postu ugari elkartu ziren. Azken beretan, Gazta Txapelketa, I. Euskal-Olo Erakusketa, II. Ardi-Ahri eta Bildote Txapelketa eta IV. Animalla eta Abere Erakusketa izan ziren. Gazta Txapelketaren irabazlea, Jose Mari Domitxin izan zen eta bere atzetik, Eneko Etxeberria, Koro Antola, Argitza Gasalburu eta Mari Karmen Zinkunegi sailkatu ziren. Arratsaldean ere jai giroa izan zen herrian. Lehenik eta behin talo jatea egin zuten, goizeko gaztak dastatuz eta baita ardo eta sagardoarekin lagunduz ere. Era berean, Luis Erasoren egur lanak ikusgai egin ziren. www.azoka.net

Amezketak



BUKATZEKO APUSTUA ETA AZOKA

Kultur Astearen baitan, larunbatean herriko gazteen eta Realako jokalariei ohien arteko lehia izan zen. Futbol partida eta herri kirolen ostean, berriketan bukatu zuten apustua. Irudiekiko osatutako bideoa www.alegaldea.hitza.info/helbidean/ikus-daiteke. Igandean bertiz, azoka izan zuten eta bertako Gazta Txapelketa Elizegi baserriko Iñaki Altunak irabazi zuen. www.azoka.net

Amasa



SAN MARTIN JAIAK BUKATUTA

Duela astebate hasi zituzten San Martin jaiak Amasan. Haur, gazte eta helduek egunak festan pasata, Igandean, agur esan behar izan zuten festak iragarri ziren den Martina Songinari. Igandean, meazaren ondoren zaldi proba izan zuten. Arratsaldean bertiz, herri kirolak izan ziren amasarak zizurkilidaren aurka neuruz zituztelarik indarrak. www.azoka.net



Promozio berria -Ibarra-
 Sustatzailea: Epergain Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
 Eraikitzen du: Aburuza Eraikuntzak S.A.
 Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

LEIHO ISOLATZAILAK

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

Ibarra



BALZAREN JAZARPENA

Josu Balza Ibarrenak igorritako ohar batean salatu duenez, «pasa den astean, 10:30 aldera, Ibarrik Tolosarako bidean, Guardia Zibilaren patruila bat aurrean geratu eta identifikatzeko eskatu zuten». Hainbat irain esan ziotelarik, «kartzelara eramatearekin nahiz modu basatian torturatzarekin» mehatxatu zutelarik. Honen ondorioz, Ibarako Amnistiararen Aldeko Mugimendua, Kantaflor musikako taldeko abeslaria den Josu Balza herriartari, elkartasuna erakutsi nahi izan zion Ibarriko plazan elkarretaratzera eginez. www.azoka.net

Tolosa



MARRAZKIA ETA BERTSOA BIDELAGUN

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako Afari Txouan 40 lagunetik gora elkartu ziren kurre elkartean eta bertso eta marrazkiaz gozatu ahal izan zuten. Bertsoetan, Bixente Gorostidi eta Iñaki Apalategi izan ziren, azken hau Unai Muñoaren ordez joan zen. Marrazten bertiz, Asisko Urmenea eta Dani Fano aritu ziren. Azken bietan beraien liburua ere aurkeztu zituzten. www.azoka.net

Tolosa



SAHARARREI ELKARTASUNA

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin delituta larunbatean elkarretaratzera egin zuten Trianguloa plazan, Mendebaldeko Saharan azken egunetan gertatutako salatu eta sahararrei elkartasuna adierazteko elkartu ziren. Bertararekin, «Nahikoa dela esan eta herri sahararri askatasunaren bidean inoiz auzatuko ez dituztelan» gogorazari nahi izan zuten. Eta «Nazioartean hipokrisia salatzeke eta behin-goz gatazka honetan duen erantzukizunari hel disezaino eskatzeke elkartu zirela azpimarratu zuten. Elkartetik, «Aialongo kanpoaldaren osatu zuten Agdaim izki kanpalekua duintasuna eta adorea ezagutari dituen herriaren elkintza izan da» adierazi zuten. www.azoka.net

Alkiza



ZIZAREEN ARAZTEGIA INAUGURATUTA

Ostiral goizean, Alkizako udal ordezkariekin batera, Markel Olano diputatu nagusia izan zen Alkiza. Eskualdeko hainbat udal ordezkari ere bertan izan ziren. Europako lehen araztegi biologikoa aurkeztu zuten. Zizareen lan bitxia bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten. 350 bitan le inguru dituen Alkizako alkateak, Jon Rotetak, gertutik jarraitu du zizareek ur zikinaren tratamenduan duten eragina. Lehenengo urtebeteko irau zuten proba pilotua egin zuten. Honen emaitza onak ikusi ostean, udal ordezkariekin batera, bera izan da herriko araztegi berriaren sustatzaileetako bat. Oso eraginikorra eta ekonomikoki errentagarria da Alkiza bezalako herri txikiarentzat. www.azoka.net

OPARI BAT ERAMAN ZURE EROSKETAREKIN BATERA IRAGARKIA ERAKUTSIAZ (azaroak 30 arte)

San Frantzisko, 23 Tolosa • Tel.: 943655719
www.tonia-denda.com

Kirolak

↓ **Emaitzak**

PILOTA	
Abel Barriola	22
Sebastian Gonzalez	17

FUTBOLA	
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
Hamargarren jardunaldia	
Ondarruko Aurrera	1
Tolosa	0

Sailkapena	
1. Hernani (25 puntu); 2. Pasajes (22 puntu); 3. Anaitasuna (22 puntu); 16. Tolosa (9 puntu).	

Hurrengo jardunaldia	
Tolosa	
Anaitasuna	

ERREGIONAL PREFERENTEA	
Hamaigarren jardunaldia	
Tolosa 'B'	2
Intxurre	1

Sailkapena	
1. Zestoa (24 puntu); 2. Antzuola (21 puntu); 3. Aretxabaleta 'B' (19 puntu); 9. Tolosa 'B' (13 puntu); 16. Intxurre (3 puntu).	

Hurrengo jardunaldia	
Orioko	
Tolosa 'B'	



Abel Barriola. HITZA

Lagun Onak	
Intxurre	

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA	
Bederatzigarren jardunaldia	
Lauburu Ibarra	2
Zierbana	2

Sailkapena	
1. Zierbana (22 puntu); 2. Burgos (19 puntu); 6. Ibarra (17 puntu).	

Hurrengo jardunaldia	
Burlada	
Lauburu Ibarra	

NAZIONAL B MAILA	
Zortzigarren jardunaldia	
Laskorain Ikastola	5
Irish Pub Sheperd	2
Transportes Lakunza	3
Petronor	3

Sailkapena	
1. Concepto Createch (24 puntu); 2. Laskorain Ikastola (19 p.); 12. Transportes Lakunza (8 p.); 14. Irish Pub Sheperd (6 p.).	

Hurrengo jardunaldia	
Orioko Tabernak	
Laskorain Ikastola	
Clinica Dental Araz	
Transportes Lakunza	
Irish Pub Sheperd	
Soloarte	

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
Zazpigarren jardunaldia	
Padura	81
Take Bide Bide Ibiza	74

Sailkapena	
1. Fundacion Baskonia (6-1); 2. Goierri (5-2); 8. Take Bide Bide Ibiza (3-4).	

Lauburuk bina egin du Zierbena liderraren aurka Belabietan

Joko ona erakutsi zuten bi taldeek; Ibarra-koek 2-1eko lortu arren, azkenean bizkaitarrek berdindu zuten

Erredakzioa Ibarra

Lauburuk berdinketa garrantzitsua lortu zuen etxean Zierbena liderraren aurka. Joko ona erakutsi zuen eta talde bizkaitarraren pare aritu zen. Unai Labakak eta Jon Garmendiak lesioengatik jokatzarik ez bazuten ere, Ibarra-ko taldeak partida ona egin zuen Be-

labieta kiroldegira joan zen ikusle ugariaren aurrean. Etxekoak aurretatu ahal izan ziren lehenengo minutuetan, baina atezain bizkaitarra fin aritu zen. Zierbenakoak izan ziren lehenak markagailua irekitzen, baina minutu bat geroago Victor Silvak berdinketa lortu zuen. Lehen zatia bukatu baino lehen, Zierbenakoek beraien atean sartu zuten gola.

Bigarren zatian ez ziren gauzak asko aldatu eta jokoak parekatuta zegoen. Bizkaitarrek berdinketa lortu zuten eta azkeneko minutetan bi taldekoek jokaldi arriskuak egin zituzten, baina golik ez zuten sartu.

Irudia o Zizurkil-Villabona



QUINTANAK, BRONTZEA

Espainako 17 urte azpiko Txapelketan Kellyam Quintanak brontze-ko domina lortu zuen 50 kiloko mailan, bere marka zazpi kilotan hobetuz. 56 kiloko mailan Asier Gallegok bosgarren postualortu zuen, bere markak lau kilotan hobetuz, eta 69 kiloko mailan Joseba Arratek 14. postua eskuratu zuen. HITZA

Laskorainek derbia irabazi die Irish Pub Sheperd billabonatarrei

Norgehiagoka nahiko parekatua hasi zen, baina pixkanaka tolosarrak nagusitzen joan ziren

Erredakzioa

Sailkapeneko bigarren postuari atxikitu eta Cocepto lider ahaltzuaren erritmo biziari beste atebetez eusteko aukera eman dion garaipen garrantzitsua lortu zuen Laskorainek joan den larunbatean Villabonako Irish Pub Sheperd bizilagunaren aurka eskuratutako hiru puntuei esker.

Neurketa nahiko parekatua suertatu zen hasierako uneetan. Bi taldeek beraien iskilu pozoin-tsuak erakutsi zituzten. Horren erakusgarri dira lehen minutuetan bi atezainek egindako geldiketak. Dena den, horitxoak 2-0 aurreratuko ziren markagailuan Barriola eta Murgiren bitartez norgehiagoka maldan behera ipiniaz etxekoentzat. Villabonakoek, ordea, jokaldi arriskutsuak joratzeko ahalmena erakusten ari ziren, baina lehen zatia amaitzear Ekhiak 3-0-eko sartu zuen.

Bigarren erdia hasi bezain pronto, Elolak modu bikainean eramandako kontraerasoa Barriolak sareratu zuen. 5 minuturen faltan alde 4-2ra murriztu zen eta Gilek 5-2ko azken emaitza itxi zuen.

Bigarren taldeak 6-4 irabazi zuen Arcelusen bost golekin. Santxoren gazteek 4-2 galdu zuten eta Pradosen neskek 1-0 irabazi.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Behobia-Donostia lasterketa Tolosaldeko eta Leitzaldeko 550 lagunetik gora bukatu dute aurten, orain arteko kopururik handiena. Eskualdeko azkarrenak bi tolosar izan dira, iazko lasterketako berdinak: emakumezkoetan Amaia Arbillaga 1:22:31ko denbora eginez eta gizonezkoetan Joseba Jauregi 1:09:56ko denborarekin

Amaia Arbillaga • Korrikalaria

«Ni nihoan lekuan beste emakumerik ez zegoenez, asko animatzen ninduten»

Imanol Garcia Tolosa

Amaia Arbillaga (Tolosa, 1984), iaz bezala, eskualdeko lehenengo emakumezkoa izan da Behobia-Donostia lasterketan. 1:22:31ko denbora egin du, iazko marka sei minututan hobetuz. Saiklkapen orokorrean hamaikagarren postua lortu du.

Eskualdeko lehen emakumezkoa izateak zer suposatzen du zuretzat? Goizean saiklkapena ikustean beste tolosar bat zegoen aurretik, baina esan didazuenez bere dortsalarekin beste batek parte hartu zuen. Behin saiklkapena ikusita ez nuen espero eskualdeko lehen izatea eta ilusioa egiten dit.

Espero zenuen horrelako marka egitea? Nire helbura hasiera batean 1:25:00 egitea zen. Aurten dezente entrenatu dut eta helburu horren bila joan naiz. Eta egia esan, uste nuena baino hobeto sentitu nintzen karreran, eta oso pozik iristerakoan ordu bat eta 22 minutu egitean.

Noiz konturatu zinen denbora ona egiten ari zirela? Hamargarren kilometroa 41 minututan pasatu nuen eta pentsatu nuen ordu bat eta 22 minutu izango zela erritmo berdina mantenduz egingo nuen denbora.

Pentsatu nuen tarde pixka batekin 1:24:00 egingo nuela, dortsalaren kolore aldaketa 1:25:00 denborago eta. Gero hamabosgarren kilometroa pasatu nuenean ordubate eta bi minutu nihoan eta orduan pentsatu nuen dena ematea. Saiatu nintzen kilometroa lau minututan egitea eta azkenean ordubate eta 22 minututan egitea lortu nuen eta oso pozik nago egindako denborarekin.

Bakarrik egin zenuen lasterketa? Mutilarekin batera egin nuen lasterketa. Batera ateratu ginen eta batera sartu ginen.



I. GARCIA

Konpainiarekin errazagoa eramaten da esfortzua?

Nire hirugarren urtea da lasterketa egiten dudala eta aurreko bietan bakarrik egin nuen. Beste bat aldamenean egonez psikologikoki askoz hobeto joaten zara, baina fisikoki entrenatuta joan behar zara.

Bai zu eta bai zure bikotekidea ere,

gizonezkoentzat ere marka ona baita l.

1:20:00ko denbora kilometroa lau minututan egitea suposatzen du. Eta nik pentsatzen nuen 4 minutu eta 15 segundotan egitea kilometroa. Hortik behera egitea erritmo nahiko polita da.

Eguraldi aldetik nola bizitu zenuen? Lehengo urtean euria indartsuago egin zuen eta tarteka euririk ez. Aurten gelditu gabe egin du. Haize gehiago egin zuen iaz, baina aurten zeharo bustita iritsi nintzen eta memento batzuetan ez zenuen ondo ikusten.

Giroaren aldetik, jendeak beti bezala asko animatzen zuen?

Jendeak asko animatzen zuen. Gainera, ni nihoan lekuan beste emakumerik ez zegoenez, asko animatzen zidaten. Nik uste dut lehengo urtean baino gehiago, aurrerago joan naizelako eta beste emakumerik ez zegoelako inguruan.

Prestatze lanetan beste lasterketa batzuetan ere parte hartu al duzu?

Bai, dezentetan. Ordiziakoan parte hartu nuen, aurreko igandean Ikaztegiakoan, Donostiako 15 kilometrokoan. Kasualitatez Tolosaldeko lasterketan kanpoan nengoan, eta pena eman zidan, Tolosaldea izanik herriko kroasean ez parte hartzea.

Datorren urtean berriro marka hobetzeko asmoz joango zara?

Beti duzu marka hobetzeko esperantza hori, baina aurten espero nuena baino hobeto aritu naiz. Eta listaia ere ez duzu jarri behar helburu konkretu batean, gero ez baduzu lortzen desengainua hartzea ez baita ona. Aurten ondo egiten dut eta pozik nago eta hor mantentzen banaiz gustura.

Esan duzue, orain dortsalean kolore aldaketa izango duzu.

Hurrengo urtean berdea izango dut. Orain gorria nuen, 1:25:00etik ondorengoa.

Horrek irteeran lasaitasun handiagoa emango du, ezta?

Jende askorekin ateratzeak korrika egitean oztupoak sortzen ditu. Dortsal gorria 1:25:00etik 1:33:00ra da, eta hor jende asko dago. Denei pasatzen asko nekazten zara eta aurretik ateratzea alde handia dago.

Joseba Jauregi • Korrikalaria

«Ordubete eta bost minututik jaisteak ia profesionala izatea eskatzen du»

Asier Imaz Tolosa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko lehen gizonezkoa izan da Joseba Jauregi (Tolosa, 1977). 1:09:56ko denbora egin du korrikalari trebeak.

Iaz bezala, aurten ere euria lagun.

Bai, baina lasterketa aurretik ez zuen egin eta lehengo urtean baino giro hobea egin zigun.

Berriro ere eskualdeko lehen, ohitura bilakatzen ari da.

Egia esan ez diot horri gehiegi begiratzen; ilusioa egiten dizu aurrean egoteak, baina gehienbat neure buruarekin gustura gelditzea da bilatzen dudana.

Iaz entrenamendu askorekin iritsi zinen Behobia, maratoia prestatzen ari zirela. Aurten nolako sentazioekin amaitu duzu?

Entrenamendu gutxiago egin ditut eta hankek hobeto erantzun didate.

Marka ere minutu batean hobetu duzu.

Aurten maratoirik ez nuen bu-

ruan. Azken aste horretako lan karga murriztean, nabaritu egiten duzu. Freskoago amaitu dut.

Horrek zer esan nahi du, gutxiago prestatu zarela edo egin duzuna Behobiarako egin duzula? Gutxiago ibili naiz eta prestatu dudana Behobiarako izan da. Entrenamendu azkarragoak eta kilometro gutxiagokoak izan dira.

Lasterketa herrikoiaz eta jaiaz gozatu al duzu?

Hau hobby bat da eta giro ona izaten da gure artean. Behin karrera hastean, topera joaten zara. Ondoren ordea, berriro lagunekin bazkaltzera eta giroaz gozatzera.

Zer azpimarratuko zenuke? Urtero bezala, lasterketa ikustera joaten den jende mordo. Atzo (herenegun), euria eta haizea egin zuen baina hala ere ikusle ugari zegoen gu animatzen.

Zure erritmo bereko korrikalariak ezagun egingo zaizkizu jada.

Gure artean beti giro ona egoten da. Kasu honetan ordea, jende asko irtetzen da eta kanpoko jende



NEREA URBIZU

berria ezagutzen joaten zara, aukera hori ere eskaintzen du Behobia-Donostiak.

Zure ispilu ere izango dira, ezta?

Horien ondoan ibiliz gero, hobeto-odo okerrago, badakizu ez zarela lehertuko.

Gustura egindako lanarekin?

Bai, gustura. Aurten gutxiago entrenatu naiz eta egindako lanerako denbora egokia dela iruditzen zait.

Duela bi urte egindako marka, ordubete eta zortzi minutukoa, ez duzu hobetzerik izan.

Marka hori jaistea kostako zaidala iruditzen zait.

Arantza bilakatu al da?

Hobetzeko ilusioa hor dago. Jaitsi dezakedala uste dut, baina horretarako ondo entrenatzeaz gain, baldintza guztiak egokiak izan behar dute. Zaila izango da, baina ez ezinezkoa.

Aldapen garrantzia eta gogortasun maiz aipatzen da. Zein da gogorrena?

Mirakruzeko aldapa egiten zait gogorrena. Iruneko aldapan oraindik oso fresko gaude. Gaintxurisketan ere bai, baina Mirakruzeko bereziki egiten da gogorra.

Maratoia tokatzen da orain, egiteko asmorik bai?

Egin egingo dut, baina lagun batzuei laguntzeko. Ez naiz marka hobetu nahian joango. Horra lasterketaz eta giroaz gozatzera joango naiz.

Hobby bat dela kontuan hartuta, nola antolatzen duzu zure egutegia?

Bi zatitan. Udazken aldean lasterketa herrikoiak egiten ditut: Behobia, maratoia, urte zaharreko krosa... Ondoren, aste batzuetan geldirik egoten naiz. Udaberriarekin batera pixkanaka hasten naiz berriro ere.

Baina profesionala ez zarene, lana ere hor dago.

Hori da. Lasterketa kanpoan korritzen dudanean, oporrak hartzen ditut. Toki desberdinak ezagutzeko ere aitzakia da.

Behobia-Donostia lasterketa herrikoira itzuliz, nola prestatu duzu aurtengoa?

Hiru edo lau hilabete lehenago lan aerobikoa egiten hasten naiz. Aldapako lana, gimnasiako lana sartzen ditut ondoren. Nahiz eta korrika egiteko hankak lantzen ditugun, bereziki, oreka ez galtzeko gerritik gorako lana egiten ere saiatzen naiz.

Irabazleak, Rafa Iglesiasek, 1:01eko denbora egin zuen. Zortzi minutu izan arren, beste mundu bat da hori, ezta?

Bai, izugarria da. Altura hauetan, minutu bat, bi minutu asko da. Sakrifizio eta lan asko eskatzen du denbora horrek. 1:06tik edo 1:05etik jaisteak, ia profesionala izatea eskatzen du.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

HITZALDIA

■ **Anoeta.** Hondakinen atez ateko bilketari buruzko hitzaldia emango du Imanol Azpirozek, udal areto nagusian, 19:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

■ **Ibarra.** *Una mujer saharai* dokumentala emango dute Kultur Trukearen barruan, Kultur Etxean, 19:00etan.

■ **Tolosa.** Filipinei buruzko diapositiben emanaldia Juantxo Goñirekin, Helduen Hezkuntza zentroan, 16:30ean.

DEIALDIAK

■ **Oresa.** Patxi Saizen kantaldia 21:30ean, Kultu.

ZINEMA

■ **Tolosa.** *La isla* filma, 19:30ean, Leidorren, Mugarik Gabe elkarteak antolatutako Zinema Sozialen emanaldien barruan.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbida, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



MUSEAN ONENAK ESKUALDEKOAK

X. Mus Azkarra Txapelketa jokatu zuten iragan larunbatean 131 bikotek Beotibar pilotalekuan. Aurrekoetan gertatu ez dena ikusi ahal izan zen aurtengoan, bi bikote tolosarrez osaturiko finala, ale-

gia. Andoni Riaño eta Gorka Aranburu izan ziren irabazleak; Anizeto Lazkano eta Agustin Iraola bigarrenak, eta hirugarrenak Jokin Urdanpilleta eta Ander Amundarain, ibartarrak, hain zuzen. HITZA

Agurrak



Zorionak!
Andres Gaztañaga (Tolosa). Gaur 93 urte.
Zorionak eta ondo pasa familiaren partetik.



Zorionak Eneko!
Herriko lorazainak etxera!

**URREA
EROSTEN
DUT**

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZIORIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea